OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO UDALA
Udal Osoa
AKTA

ZB. 2026 / 9

AKTA

UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko Ohiko batzarra bildu da:

Eguna: 2026/07/29
Ordua: 18:00ak
Tokia: Udaletxeko areto nagusian
Bertaratuak:

Alkatea: Joana Mendiboure
Zinegotziak:

EH Bildu
- Agustin Lekuona Irastorza
- Olaia Lasa Olaziregi
- Garazi Urdampilleta Astibia
- Nora Velez del Burgo Zalakain
- Jexux Olaziregi Bagües
- Edorta Fernandez Etxepeteleku
- Oihana Irastorza Gonzalez
- Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
- Ekain Susperregi Ibarguren

EAJ-PNV
- Janire Mitxelena Lekuona
- Rafael Bergaretxe Urdampilleta
- Maitane Larruskain Agirre
- Iñaki Arbelaiz Mitxelena

Idazkaria:

Oihane Mallagaray Revilla

Ezin etorria adierazi dute:

Ibon Mitxelena Fernandez
Jon Albisu Mendiburu
Ibintza Iragorri Iriarte

AZTERGAIAK:

1. Aurreko batzarrari dagokion akta onartu zen.

2. Ez zen onartu EAJ/PNV taldeak aurkeztutako mozioa: ertzaintza eta udaltzaingoen aurkako mehatxu, jazarpen eta seinalatzeak gaitzesteko eta bizikidetza demokratikoaren aldeko mozioa.

3. Onartu zen, EH Bildu taldeak aurkeztutako mozioa: Oiartzun udalerri euskalduna da, eta arnas gune bilakatzeko beharrezkoak diren pausoak emateko hartu beharreko erabakien proposamena.

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

4. Lezoko, Oiartzungo eta Pasaiako udalen eta Emaus gizarte fundazioaren arteko, gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako eguneko arreta zentroan zerbitzu berritzailea garatzeko lankidetza hitzarmena sinatzeko erabakia hartu zen.

5. Udalak eta Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoak 2-3 urteko gelen hezkuntza baimenari uko egitearen ondorioak 2027ko irailaren 1era atzeratzeko eskaera egiteko erabakia hartu zen.

6. Lanbarren parke logistikoko Arkotz eta Arañaburu kaleen (Oiartzun) eta AP-8-aren arteko ezpondaren aldizkako azterketa geoteknikoaren zerbitzu-kontratuaren lizitazioa hutsik geratu izana deklaratu zen.

7. 2026rako Zerga Ordenantzaren bigarren aldaketa: ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen erabileragatiko prezio publikoa ezartzea erabaki zen.

8. 2026/02 kreditu aldaketaren berri eman zen.

9. 2026/07 kreditu aldaketaren berri eman zen.

10. Beste organoen jardueraren jarraipenaren berri eman zen.

11. Zerrendaz kanpoko lehen gaia, Manuel Lekuona 3 helbidean dagoen osasun zentroan burutuko diren argiteria berritzeko lanak, herri mailako onura publikoa direla onartu zen.

12. Janire Mitxelena EAJ/PNV taldeko zinegotziak Udal Ikastola Partzuergoaren gaiaren inguruko aipamen bat egin zuen eta gai horri dagokionez herritar batek bere iritzia eman zuen.

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

OIARTZUNGO
UDALA

-I-

AURREKO BATZARRARI DAGOKION AKTAREN ONARPENA.

2026ko ekainaren 24an egindako Udal Osoko ohiko bilkuraren akta eta 2026ko uztailaren 6ean egindako Udal Osoko ez-ohiko bilkuraren akta onartu zen gehiengo absolutuz, aldeko 14 bozkarekin (EH Bildu 10, EAJ/PNV 4)

-II-

EAJ/PNV TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ERTZAINTZA ETA UDALTZAINGOEN AURKAKO MEHATXU, JAZARPEN ETA SEINALATZEAK GAITZESTEKO ETA BIZIKIDETZA DEMOKRATIKOAREN ALDEKO MOZIOA

Janire Mitxelena, EAJ/PNV alderdiko ordezkariak, honakoa adierazten du:

“Denbora asko daramagu entzuten garai berriak bizitzen ari garela, baina, hala ere, zoritxarrez, oraindik ohikoak dira, eta azken boladan are gehiago, Herri honetan iraganean bizi izan genituen garai-ilunak gogorarazten dizkiguten jarrerak eta keinuak. Horren adierazgarri da, besteak beste, azkenaldian ertzainei, udaltzainei eta lanpostu hauetarako oposaketak prestatzen ari diren gazteei zuzendutako hainbat eraso, mehatxu, seinalatze eta irain larri bizi izan ditugula zenbait kolektibo edota pertsonaren eskutik.

Gernikako ertzain-etxearen lurralde-eremua ere ez da jarrera horietatik libratu, eta uztaileko egun hauetan hainbat ertzain mehatxatu eta iraindu dituzte. Oraingoan, gainera, haien familia-etxebizitzak erabili dira mehatxu horiek egiteko. Baina aste batzuk lehenago Hernaniko jai-eremutik zerbitzuz kanpo zegoen ertzain bat kanporatzen ikusi genuen. Herriko jaietan bertan, Ertzaintzaren eta udaltzaingoaren aurkako kantu iraingarriak egin zituzten. Antzeko gertakariak izan dira Gasteizen, eta ohikoak izan dira hainbat udalerritako jai-egutegian.

Herritarren bizikidetza eta segurtasuna gizarte demokratiko baten funtsezko zutabeak dira, eta Ertzaintza zein udaltzaingoak funtsezko elementuak dira gure segurtasuna bermatzeko. Hilabete hauetan bizitako gertakariak eta gure lurralde-eremuan bizi diren agenteei iragan egunotan egindako erasoak, giza-eskubideen urraketa larria suposatzen duten jazarpen-indarkeria legez kalifika daitezke, eta jarrera guztiz antidemokratikoak dira. Horregatik ezinbestekoa da erakunde guztiek eta hauetako arduradun publikoek gertatutakoa irmoki salatzea eta gaitzestea.

Hain gertakari larriak ez errepikatzearen inguruan ados bagaude, funtsezkoa da pedagogia bat partekatzea, argi eta eufemismorik eta anbiguotasunik gabe adieraziko duena jarrera horiek ez dutela inolako babesik, justifikaziorik edo zilegitasunik. Egintza eta jarrera bidegabeak eta justifika ezinak dira.

Ildo horretan, EAJ-PNVk mozio hau proposatzen dio Udal honetako Osoko Bilkurari.

- OIARTZUNGO udalbatzako ordezkariek azken aste eta hilabeteetan Euskadiko hainbat herritan Ertzainek eta Udaltzainek jasan dituzten mehatxuak, irainak, seinalatzeak eta diskriminazio ekintzak salatu eta gaitzesten dituzte.

- OIARTZUNGO Udalak Euskal Poliziaren, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen lan profesionala babeste eta aintzatesten du, bai eta euskal gizartearen segurtasunari eta bizikidetzari egiten dioten ekarpen erabakigarria ere.

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

- Udal honek euskal herritarren askatasunen defentsan eta sustapenean oinarritutako elkarbizitza-eredu batekiko konpromisoa adierazten du. Elkarrekin bizitzeko eredu hori joko-arau demokratikoetan oinarritzen da, eskubideetan eta betebeharretan oinarrituta, eta hori errespetatzeak eta betetzeak ez du zigorgabetasun edo bazterkeria-gunerik onartze, ezta anbibalentziarik ere."

Alkateak hitza hartzen du.

"EH Bilduk argi du elkarbizitza demokratikoak pertsona guztiek beraien bizitza pertsonal eta profesionala mehatxurik, koakziorik, seinaleamendurik eta intimidaziorik gabe garatu dezaten bermatzea eskatzen duela. Horregatik, Ertzaintzaren, udaltzaingoaren, ordezkari publikoen zein beste pertsona batzuen aurkako mehatxu, koakzio, seinaleamendu zein intimidazioak gaitzesten ditugu.

Azken hilabeteetan, ordea, zenbait politikarik egiten duten Ertzaintzaren instrumentalizazio alderdikoia ikusten ari gara. Erabilera anker horrek ez du helburu ertzaintza babestea, baizik eta alarma, polarizazioa eta estigmatizazioa sortzea. Elkarbizitzaren aldeko apustuak bi ekintzak salatzea eskatzen du, biak ala biak baitira elkarbizitzaren aurkako jarrerak: bai mehatxu eta intimidazioak, baita polarizazioa eta estigmatizazioa sortzea ere. Herri honetan badago argitzear dagoen sakoneko arazo bat.

Egun, Ertzaintzan eta polizia-gorputz batzuetan ageri diren jokabide askok herritarrak polizia autonomikoarengandik gero eta urrunago egotea dakar. Beraz, ezinbestean erantzun gizalegez, politikoz jokatu eta honen inguruko hausnarketak abiatu behar ditugu dagokien instituzioetan. Oiartzunen gainera bide luzea eta emankorra egin dugu jai-eremuko segurtasuna bermatzeko lan-moldeetan. Isileko lana izan da urteetan egin dena, elkarlanean burutu izan dena eta demostratzen duena foku mediatikoetatik urrun lan egitea dela benetan bizikidetzaren aldeko pausoak ematea."

Alkateak adierazpenak amaitu ondoren bozketari ekiten diote.

EAJ/PNV taldeko aldeko 4 bozka eta EH Bildu taldeko aurkako 10 bozka. Beraz, mozioa bertan behera geratzen da.

-III-

EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: OIARTZUN UDALERRI EUSKALDUNA DA, ETA ARNASGUNE BILAKATZEKO BEHARREZKOAK DIREN PAUSOAK EMATEKO HARTU BEHARREKO ERABAKIEN PROPOSAMENA

Aiako Harria Gaztelumendi zinegotziak hitza hartzen du mozioa azaltzeko.

"Arnasguneek hizkuntza gutxituen biziberritzean duten garrantziaz sarri hitz egin da Mikel Zalbide soziolinguistak kontzeptua bera euskarara ekarri zuenetik. Lehenago, UEMA sortu zutenek ere, lurgune euskaldunak euskarak bizirik irauteko duen garrantziaz ohartuta, ekin zioten mankomunitatearen ibilbideari. Harrezkero, urte askoan egindako lanaren ondotik, gaur egun adostasun handia dago arnasguneek indarberritze prozesuan duten garrantziaren inguruan, bai euskalgintza sozialean, bai akademian, bai euskararen alde ari diren erakunde publikoetan.

Kezkatzekoak dira, ordea, euskara indartsuen dagoen lurgunean antzematen diren joerak. Ez da oraingo kontua udalerririk euskaldunenetan adierazle soziolinguistiko nagusiak atzeraka hasi izana, baina urteek aurrera egin ahala, egoera kezkagarri batera iritsi gara, zinez. Adierazle nagusietan atzera egiteaz gain, gune horietako hiztunen tipologia ere asko aldatu da. Azken batean, nazioarteko joera orokorrekin bat, bizi ereduaren bilakaerak, bilakaera demografikoak eta globalizazioaren ondorio zuzenek arnasguneak desagertzeko bidean jarri dituzte. Argi erakutsi du Siadecok 2025ean egindako proiekzio

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

demolinguistikoak: euskararen alde orain arte egiten ari garena egiten jarraitzen badugu, euskarak bizi duen geldialdia galera fasean sartuko litzateke. Horri aurre egingo dion erantzun sendo bat mamitu nahiak bultzatu zuen UEMA otsailean Lurralde Estrategia Euskararentzat proposamena aurkeztera.

UEMAk, 121 udalerri euskaldun biltzen dituen erakunde publikoa den heinean, dagokion arduratik eta eremu euskaldunena gure hizkuntzarentzat giltzarria dela jakinda, egin zuen proposamena. Ekarpen hori bere bidea egiten ari da. Proposamen horrek hizkuntza politikaren norabidea aldatzea eskatzen du, eta, bide horretan, adostasunak bilatzeko lanean ari da UEMA orain.

Horrekin batera, *Esnatu* dinamika abiatu zuen UEMAk apirilean, politikatik egin beharrekoaz gain, gizartea bera ere badelako nor geldialdi horri aurre egin, eta euskararen biziberritzea indarraldian jartzeko. Dinamika horren abiapuntu gisa, Euskal Herriko nazio mailako 18 eragilek atzerakada hori gelditzeko konpromisoak hartu zituzten. Ordutik, udalerriz udalerri herrietako eragileak ere dinamika horretara gehitzeko lanean dihardu UEMAk. Ildo horretan, guri, udal gisa ere, badagokigu gure eredugarritasuna ikusaraztea, eta bide honetan gure alea jartzea.

Oiartzun *udalerri euskalduna* da, eta *arnasgunetze bidean* urrats sendoak egitea da gure helburua.

Horretarako, udalak duen arduratik eta dituen eskumenetatik konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Erabilera planean onartutako hizkuntza irizpideak betetzea.
- Kontratazio publiko guztietan hizkuntza baldintzak txertatu eta horien jarraipena egitea.
- Doako euskalduntzea bermatzea.
- Haur eta gaztetxoen aisialdia euskara hutsean programatzea.
- Udalen eskumenekoak diren esparruetan euskararen normalizazioan urrats sendoak ematea (ELE Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa arautzeko ordenantza, terrazetako ordenantza, azoka eta ferietako ordenantza…).
- Etorri berriak euskarara gerturatzeko egitasmoetarako bitartekoak areagotzea.”

Azalpena amaitu ondoren, Alkateak hitza hartzen du eta bozketari ekiten diote.

Aho batez onartu da, EH Bilduren 10 bozka eta EAJ/PNVren 4 bozkarekin.

-IV-

LEZOKO, OIARTZUNGO ETA PASAIAKO UDALEN ETA EMAUS GIZARTE FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, GIZARTE BAZTERKETAKO EGOERAN EDO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONENTZAKO EGUNEKO ARRETA ZENTROAN ZERBITZU BERRITZAILEA GARATZEKO

Alkateak Olaia Lasa Olaziregi zinegotziari hitza ematen dio gaia azaldu dezan.

“Lezo, Oiartzun eta Pasaia udalek urteak daramatzala eskualde mailako lankidetza estrategiko batean gaikuntzari [gai komunei] erantzuteko eta baliabide eta tresna bateratuak sortzeko. Esan eguneko arreta zentroa eskualde mailako udal-arreta zerbitzu bat dela eta bere helburuak honako hauek direla: oinarrizko beharrak asetzea, esku-hartze sozio-hezitzaile eta psikosoziala, laguntza sozial pertsonalizatua, tokiko harreman-laguntzen ekosistemaren aktibazioa eta gizarteratzea sustatzea.

Eguneko arreta zerbitzuko kudeaketa hau Lezo, Oiartzun eta Pasaia udalek elkarrekin antolatzeko erabaki dute, Lezoko Jaizkibel hiribidea 4 zenbakian. Arlo ekonomikoari dagokionez, hitzarmena litzateke Emaus Gizarte Fundazioarekin. Emaus Gizarte Fundazioa irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundea da, eta baditu zerbitzua emateko behar diren baliabide tekniko, profesional eta metodologikoak.

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

OIARTZUNGO
UDALA

Tresna oso lagungarri izango da Emaus Gizarte Fundazioak dakarkien screening tresna-diseinu bat, pertsonen gizarte-arrisku maila eta konplexutasuna zehaztasunez aztertzen dituena. Eta orduan hitzarmena aurrera eramateko, eragin ekonomikoari dagokionez, Udalaren hartan, urtean ehun eta berrogeita hamalau mila berrehun eta hogeita hamaika koma berrogeita hemeretzi euro hitzarmena kantitatekoa izango da, eta Oiartzungo udalak dagokion kantitatekoa ehun eta berrogeita lau mila bederatziehun eta hogeita bederatzi koma hirurogeita lau eurokoa izango da."

Azalpenak amaitu ondoren, akordio proposamena irakurtzen du:

Lehena.- Onartzea Lezoko, Oiartzungo eta Pasaiako Udalen eta Emaús Gizarte Fundazioaren arteko lankidetza-hitzarmena, gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako Eguneko Arreta Zentroan zerbitzu berritzailea garatzeko (eranskinean jaso da).

Bigarrena.- Onartzea hitzarmena gauzatzeko Oiartzungo Udalari dagozkion konpromiso ekonomikoak, hitzarmenean ezarritako baldintzetan, 2026. urteko 57.454,87 euroko gastua onartzea eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 10341.226.231.0098 2026 (5771) partidari egoztea, ekitaldi bakoitzean aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean.

Hirugarrena.- Alkate-Udalburua, Joana Mendiboure andrea, ahalmentzea lankidetza-hitzarmena eta hura gauzatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko, bai eta hitzarmenaren garapen eta betearazpenerako beharrezkoak diren administrazio-egintza guztiak egiteko ere.

Laugarrena.- Lankidetza-hitzarmena Oiartzungo Udalaren web orrian argitaratzea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoarekin bat etorriz.

Bosgarrena.- Erabaki hau Lezoko Udalari, Pasaiako Udalari eta Emaús Gizarte Fundazioari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Ordainketen banaketa era honetan egitea proposatzen da:

• Lehen urtealdia (2026ko iraila – 2027ko iraila): 114.909,74 €

- % 50, 57.454,87 €, hitzarmena sinatu ondoren, 2026ko irailean.
- % 30, 34.472,93 €, 2027ko urtarrilean.
- % 10, 11.490,97 €, 2027ko ekainean.
- Gainerako % 10a, 11.490,97 €, urtealdiari dagozkion gastu guztien justifikazioa aurkeztu eta egiaztatu ondoren, 2027ko irailean.

• Bigarren urtealdia (2027ko iraila – 2028ko iraila): 114.909,74 €

- % 50, 57.454,87 €, 2027ko irailean.
- % 30, 34.472,93 €, 2028ko urtarrilean.
- % 10, 11.490,97 €, 2028ko ekainean.
- Gainerako % 10a, 11.490,97 €, dagokion urtealdiko gastuen justifikazio osoa aurkeztu eta egiaztatu ondoren, 2028ko irailean.

Ebazpen proposamena irakurri ondoren bozketara ekin diote. Udal Idazkariak eta Kontu-hartzaileak emandako txostenekin adostasunean eta Herritarrak batzordeak, 2026ko uztailaren 22an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu du Lezoko, Oiartzungo eta Pasaiako Udalen eta Emaús Gizarte Fundazioaren arteko lankidetza-hitzarmena, gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako Eguneko Arreta Zentroan zerbitzu berritzailea garatzeko.

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	14	10 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Oihana Irastorza Gonzalezek gaiarekin duen harremanarengatik aretoa uzten du.

-V-

UDALAK ETA OIARTZUNGO UDAL IKASTOLA PARTZUERGOAK 2-3 URTEKO GELEN HEZKUNTZA BAIMENARI UKOEGITEAREN ONDORIOAK 2027KO IRAILAREN 1ERA ATZERATZEA

Alkateak, gaia azaldu aurretik, udalbatzari jakinarazi dio udal erregistroan zuzenketa bat sartu dela eta Garazi Urdampilleta zinegotziari hitza eman dio aipatutako zuzenketa irakur dezan.

Udal honen 2026ko uztailaren 23ko Antolaketa Batzordeak diktaminatu du eta Udalbatzako uztaileko bilkura arruntean ebaztea proposatu da, 2026-2027 ikasturtean, modu trantsitorioan, 2-3 urteko gelen zerbitzua Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoak ematen jarraitzea, horretarako 2025eko abenduan udal osoko bilkuran onartutako baja eskaeraren ondorioen data 2027ko irailaren 1era atzeratuz.

Hori guztia ikusirik, 2026ko uztailaren 23ko Antolaketa Batzordeak onarturiko diktamenari emendakina egitea proposatzen dut OUIPek Urmendi izeneko eraikinaren zati bat 2-3 urteko gelen haurreskola zerbitzua, orain arte bezala modu integralean, eman dezan. Lagapenak honako espazioak barneratuko ditu: 4 gela, psikomotrizitate gela eta sukaldea.

Ondorioz, aipatu diktamena honako testuarekin osatzea proposatzen da:

AKORDIOA

“Bigarrena.- Arestian esandakoa egikaritzeko Urmendi eraikinean 4 gela, psikomotrizitate gela eta sukaldea Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoari erabiltzeko zesioan uztea, 2026ko irailaren 1etik 2027ko uztailaren 1era, 2 urteko haurreskola zerbitzua eman dezan. Lagapenaren espazioak jasotzen duen planoa eransten da.”

Garazi Urdampilletak amaitu ondoren, Alkateak hitza hartzen du eta aurrekariak azaltzera ekiten dio.

“Espediente honen aurrekariak 2025eko uztailean kokatu ziren. Izan ere, 2025eko uztailaren 3an Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeak erabaki zuen bi urteko gelen hezkuntza-baimena Haurtzaro Ikastolari lagatzea, hark dagokion baimen-eskaera aurkeztu ahal izan zezan. Erabaki hori 2025eko abenduko osoko bilkuran berretsi zen, bi urteko gelen hezkuntza-baimenari baja ematea onartu baitzen, Haurtzaro Ikastolari baimen horiek eskuratzeko bidea errazteko asmoz.

Era berean, Haurtzaro Ikastolak 2025eko uztailetik aurrera abian zituen dagokion baimen-eskaeraren izapideak. Hala ere, Hezkuntza Sailak espedientea ireki eta izapidetzen ari zen bitartean, Udalari jakinarazi zitzaion Haurtzaro Ikastolak eskatutako bi urteko gelen baimen berria ez zela jaso 2026-2027 ikasturterako plangintzan.

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

Egoera hori ikusita, eta Hezkuntza Sailarekin egindako bileretan adostutakoarekin bat etorriz, 2025eko abenduan onartutako baja-eskaeraren ondorioak atzeratzea proposatu zen, ondorio juridikoak 2027ko irailaren 1etik aurrera izan zitzan.

Horrenbestez, 2026-2027 ikasturtean, aldi baterako eta trantsizio-neurri gisa, bi urteko gelen zerbitzua Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoak ematen jarraitzea proposatu zen. Horretarako, 2025eko abenduko osoko bilkuran onartutako baja-eskaeraren eraginkortasun-data 2027ko irailaren 1era atzeratzea planteatu zen.

Bestalde, Udaleko kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, udal aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia dago, 2026-2027 ikasturtean bi urteko gelen haurreskola-zerbitzua finantzatzeko. Horren berri eman zitzaion Antolaketa eta Kontu Berezien Batzordeari 2026ko uztailaren 23an egindako bilkuran.

Azkenik, adierazi da EAJ udal taldeak espediente horren inguruan hamahiru galdera aurkeztu zituela, eta galdera horiei dagokien erantzuna emango dio alkateak, horretarako prestatutako informazioaren arabera.

EAJ/PNV taldeko Janire Mitxelena zinegotziak hitza hartu eta ondorengoa adierazi zuen:

“Arreta eman didate emandako azalpenak, zehazki 2025eko abenduko osoko bilkuran onartutako bajari buruzkoek. Nire ustez, espediente hori ez zen baja gisa izapidetu.

Oker ez banago, joan den ekaineko osoko bilkuran Maribik ez zuen "baja" terminoa erabili, integrazioa aipatu zuen, eta leku aldatzea ere bai.

Nolanahi ere, erregistratutako galderak honako hauek dira

1. Zein da gaur egun Urmendiko bi urteko gelaren egoera administratiboa 2026-2027 ikasturterako?

2. Nork emango du 2026-2027 ikasturtean HH2-ko hezkuntza-zerbitzua eta zein izango da horren oinarri juridikoa?

3. Zein kostu ekonomiko izango du Oiartzungo udalarentzat 2026-2027 ikasturtean hartutako irtenbideak, zein aurrekontu partidaren kontura finantzatuko da?

4. Kontu hartzaileak edo udaleko zerbitzu ekonomikoek txostenik egin dute hartutako irtenbidearen legezkotasunari edo bideragarritasun ekonomikoari buruz? Adierazi al dira ondorio nagusiak?

5. 2026-2027 ikasturtean, udalak zuzenean eskainiko duen HH2 zerbitzua doako izango al da familia guztientzat? Baldintza berberetan eskainiko al da Oiartzungo familia guztientzat?

6. Nola antolatuko da 2026-2027 ikasturtean haurreskolen partzuergoko haurrentzako sukalde-zerbitzua? Hasieran aurreikusitako eredua aldatu al da? Adierazi zergatik.

7. Zein informazio helarazi zaie familiei espedientearen egoerari buruz? Orain arte zer komunikazio egin da, noiz, zein bideren bidez eta nori zuzenduta?

8. Noiz izan zuen udal Gobernuak lehen aldiz hasieran aurreikusitako irtenbidea ezin izango zela aurreikusitako moduan gauzatu jakinarazten zuen informazioa?

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

9. Zein neurri hartuko ditu udal gobernuak Oiartzungo bi urteko haurren banaketa orekatua bermatzeko eta ikasleen kontzentrazioa eta segregazioa saihesteko? Nola bermatuko da udalaren neutraltasuna familien askatasunarekiko?

10. Zein aurreikuspen ditu udal gobernuak 2027-2028 ikasturteetarako Urmendiko bi urteko gelaren antolaketari dagokionez?

11. HH2-ko gelek sukalde-zerbitzua izango al dute 2026-2027 ikasturtean? Hala bada, nork finantzatuko du zerbitzu hori? Doako izango al da familientzat, ala familiek ordainduko dute?

12. HH2-ko geletako haurrek parkea edo aisialdirako kanpo espaziorik izango al dute? Hala bada, zein espaziora ibiliko dute?

13. HH2ko geletako haurrek Haurreskolen Partzuergoko gainerako haurrek jasoko dituzten zerbitzu eta bide berberak izango al dituzte? Ala ez bada, zein izango dira desberdintasunak?

Alkateak hitza hartzen du eta honakoa erantzuten dio:

“Lehenik eta behin, ezinbestekoa da aurrekariak behar bezala kokatzea. Izan ere, nire ustez galdera hauen atzean intentzionalitate bikoitza dago: alde batetik, Oiartzungo Udalak Hezkuntza Sailarekin desadostasunak dituela iradokitzea; eta, bestetik, prozesu honen iraupen luzea Oiartzungo Udalaren erantzukizuna izan dela adieraztea. Horregatik, aurrekariak zehaztasunez azaltzea bereziki garrantzitsua dela uste dut.

Esan bezala, 2025 urteko uztailaren 3an, urtebete baino gehiago pasata, OIUP-eko zuzendaritza batzordeak Hezkuntza Sailari bi urteko gelen hezkuntza baimena eskatzea erabaki zuen, OIUP-eko kide den Haurtzaro Ikastolara eskualdatzeko. 2025eko irailaren 9an bidali zitzaion Hezkuntza Sailari jakinarazpena, eta aldi berean Haurtzarok bere aldetik 2025eko uztailean zerbitzu hori emateko baimena eskatu zuen.

2025eko abenduaren 10ean erantzunik jasotzen ez zela eta, berriz bidali zitzaion eskaera Hezkuntza Sailari. 2025eko abenduaren 22an, udal batzarrean bi urteko gelen baja eskaera egitea onartu zen. 2026ko urtarrilaren 16an, Hezkuntza Sailak Udalari kendu nahi zituen unitateak zehazteko eskatu zion, horiek horrela, hiru egunera bidali zitzaion erantzuna, nahiz eta 2025eko irailean bidalitako jakinarazpenean informazio hori jada emana zegoen. Gaur egun Hezkuntza Sailaren aldetik ez da espedientean bestelako jakinarazpenik jaso.

Bitarte horretan egia da hainbat dei eta email partekatu ditugula Hezkuntza Sailarekin, baina azpimarratzekoak dira Hezkuntza Sailetik jaso ditugun erantzun bakanak. Hainbat email geratu zaizkigu erantzunik gabe, eta aurreko udalbatzan ere alaxe adierazi genuen. Horretaz gain, jaso ditugun argibideak ez dira inoiz oso garbiak izan. Uztailaren 16an Oiartzungo Udalak hala eskatuta Hezkuntza Saileko ordezkariekin elkartu ginen. Egoera kudeatzeko adostasunera heltzeko asmo erabatekoarekin ginen, eta jasotako harrera ere bestelakoa izan zen.

2026-27 ikasturtean bi urteko haurrentzako zerbitzua OIUP bitartez eskaintzen jarraituko da, horrela hautatu duten familientzako noski, eta horrela adierazi zaie familia interesatuei. Zerbitzua doakoa izango da, eta urtero bezala matrikulazio garaian familiek erabaki dutenaren arabera egongo dira zentro batean ala bestean.

Hezkuntza Sailarekin egindako bileran 2026-2027 ikasturtean zehar Haurtzaro Ikastolak bere aldetik bere baimen-eskaerak egingo zituela adostu zen eta hurrengo ikasturtera begira zegozkien ondorioak izango zituela. Horregatik gaurko proposamena, 2027ko irailaren batetik aurrera OIUP-eko gelen baja gauzatzeko erabakia hartzea da.

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

Udal aurrekontuan badago zerbitzua emateko beharrezko partida, kontu-hartzaileak dagokion txostena egin du eta 2026an OIUPen zerbitzua bermatzeko aurreikusita dagoen partida bera erabiliko da horretarako eta soberakinekin gelditukо da gainera.

Gela eta instalazioari dagokionez, Haurreskolak Partzuergoak Maria Garaiar eraikineko bost gela eta psikomotrizitate-gela izango ditu, horiekin batera erabilera anitzeko gunea, irakasleen bilera-gela, zuzendaritzarako bulegoa, aldagelak eta jolas-eremu itxia ere izango ditu. Bestelako unitate bat izango du Haurreskolak Partzuergoak ere, Harri gainen kokatuko dena. Bertan gelaz gain psikomotrizitate-gela, erabilera anitzeko gunea, irakasleen bilera-gela, komunak eta jolas-eremu itxia egongo dira, jada atonduak daudena. OIUP-ek berriz, bere aldetik, hiru gela, psikomotrizitate-gela, irakasleen bilera-gela, erabilera anitzeko gunea, komunak eta jolas-eremua izango ditu. Guzti hori berriro diot Hezkuntza Sailarekin adostuta.

Jangelari dagokionez, OIUP-eko zerbitzuak orain arte bezala jarraituko du, bai antolaketari dagokionez, eta baita otorduen prezioari dagokionez ere. Haurreskolak Partzuergoko familiei jangela zerbitzua bermatzeko lanean ari gara, Haurreskolak Partzuergoak ez duelako zerbitzu hori bermatzen, baina Oiartzungo familiek orain arte emandako zerbitzua oso ongi baloratu dutenez, ahalegin hori egingo du Oiartzungo Udalak, eta familien eskaerari erantzuten jarraituko dugu orain arte bezala.

Azpimarratu nahiko nuke Hezkuntza Sailarekin izandako azken bilera horretan, bai Hezkuntza Sailak bai Oiartzungo Udalak, elkarlanerako prestutasun osoa adierazi genuela, adostasuna erabatekoa izan zela eta egoera honetan bi erakundeek gure egin genuela familiei erantzun egoki eta integral bat emateko ardura. Prozedura osoan zehar Oiartzungo Udalak leialtasun instituzionala lehenetsi duela azpimarratu nahiko nuke. Prozeduran zehar bizi izan ditugu zailtasunak diskrezioz kudeatu ditugu, era berean familiekin gardentasunez jokatuz. Erakundeen arteko elkarlana lehenetsi dugula jakinda, EAJ-tak gaur egindako galderak lekuz kanpo daudela iruditzen zaigu: batetik, Hezkuntza Sailarekin adostasunean ari garelako lanean eta familiei zuzeneko informazioa emanez. Bestetik, galderak egiteko eta eztabaidatzeko gune arautuak daude udal antolaketan eta gune horiek batzordeak dira. Uste dut desadostasunak desadostasun, eta udalbatzan desadostasun horiek egon behar diren arren, egoki litzatekeela aurrerantzean aldez aurretiko lanketa hauek batzordeetan egitea horretarako egiten ditugu eta.”

Alkateak azalpenak amaitu ondoren, Janire Mitxelenak ondorengoa erantzuten dio:

“Berak dakidala Haurreskola Partzuergoak ez du jangela zerbitzua eskaintzen eta zerbitzua edo OIUP-eri edo Haurreskolak Partzuergoari eman behar zaio, ezin zaio biei batera eman.
Bestalde, egia da batzordeetan egin daitezkeela galderak, baina udalbatzan ere bai beraz, horregatik luzatu ditugu galderak batzar honetara.

Hilabete hauetan denetarik entzun dugu. Esan zaigu oker geundela. Esan zaigu ez genuela administrazioa ulertzen. Esan zaigu gai hau Gobernuaren aurka erabiltzen ari ginela. Eta pleno honetan bertan ere entzun genuen lotsarik ez genuela.

Gaur, ordea, espediente osoa aztertzeko aukera izan dugu. Eta horren ondoren galdera bakarra egiten dugu. Benetan gu geunden oker? Edo kronologiak erakusten du EAJ-PNVk planteatutako zalantzak arrazoizkoak zirela?

Gaur ez gara iritziaz hitz egitera etorri. Ezta emozioez ere. Gaur kronologiaz hitz egingo dugu. Administrazioan, kronologiak ez duelako gezurrik esaten. Dokumentuek ez dute iritzirik. Baina gertatutakoa erakusten dute. Eta, gure ustez, gertatutakoak ondorio argi bat uzten du. Arazoa ez da izan amaieran zer egin den. Arazoa izan da erabakiak garaiz ez hartzea.

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

Prozesu honetan ikasi dugun lehenengo gauza bat dago. Administrazio guztietan dira ezinbestekoak epeak eta prozedurak errespetatzea. Baina hezkuntzan, gainera, epe bakoitzak ondorio zuzena dauka. Familiengan, haurrengan, langileengan. Epeak ez dira tramite hutsak, matrikulazioa dira, gelak planifikatzea dira, langileak antolatzea dira, familiei ziurtasuna ematea dira.
Horregatik diogu hasieratik. Arazoa ez da izan amaieran hartu den erabakia. Arazoa izan da erabaki horiek garaiz ez hartzea. Eta horixe da gaur azaldu nahi duguna.

2025eko martxoan EAJ-PNVk mozio bat aurkeztu zuen. Helburua argia zen. Urmendiren etorkizunari ziurtasuna ematea eta Haurreskolen Partzuergoarekiko integrazioa garaiz bideratzea. Mozioa ez zen aurrera atera. Gainera, kentzea ere proposatu zitzaigun, nahiz eta garaiz erregistratuta egon eta gai-zerrendan sartuta egon. Esan zitzaigun ez zela unea eta aurrerago ikusiko zela. Baina administrazioan uneek badute garrantzia eta epeek ez dira inoren zain egoten. Horregatik uste dugu gaur kronologiari begiratzea ezinbestekoa dela.

2026ko urtarrilaren 30ean amaitzen zen Haurreskolen Partzuergoari erantzuteko epea. Galdera sinplea zen, bai ala ez. Integratu ala ez. Baina erabaki hori ez zen hartu eta horren ordez, otsaileko Osoko Bilkurara beste proposamen bat ekarri zen, Haurreskolen Partzuergoa Urmendi Udal Ikastola Partzuergoan integratzeko proposamena.

Gaur badakigu bide hori ezinezkoa zela. Haurreskolen Partzuergoko estatutuek ez zutelako aukera hori aurreikusten eta, hala ere, hilabeteak eman ziren aukera hori defendatzen. Baina bada guretzat bereziki esanguratsua den beste datu bat. Urtarrilaren 30a baino lehen bazenekiten 2026-2027 ikasturterako HH2 gela Haurtzarora lekualdatzeko asmoa bazegoela.

Horregatik, are zailagoa egiten zaigu ulertzea zergatik ez zen integrazio-eskaera garaiz izapidetu. Are gehiago, otsaileko proposamenean bertan jasotzen zen Udalak ez zuela baztertzen Haurreskolen Partzuergoan integratzeko aukera. Horregatik egiten dugu galdera, Aukera hori mahai gainean bazegoen, zergatik ez zen dagokion eskaera formala garaiz egin? Administrazioan eskaerak ez dira interpretazio bidez egiten, ez dira asmoen bidez egiten, dagokion organoan egiten dira eta kasu honetan, Osoko Bilkuran.

Handik aurrera, hilabeteak igaro ziren eta EAJ-PNVk galdera berak egiten jarraitu zuen. Zer gertatuko da Urmendirekin? Zein izango da B plana? Zer gertatuko da HH2 gelarekin? Erantzun argirik ez genuen jaso eta bitartean, epeak aurrera zihoazen. Gure ustez, hor dago prozesu honen gakoa, integrazioa garaiz izapidetu beharrean, eztabaida politikoak hartu zuen protagonismoa, adierazpen publikoak etorri ziren, prentsaurrekoak, parlamentarien bisitak, baina administrazio-prozedurek ez zuten behar zuten erritmoa izan. Hori da gaur azpimarratu nahi duguna. Administrazio guztietan dira ezinbestekoak epeak eta prozedurak errespetatzea. Hezkuntzan, gainera, epe bakoitzak ondorio zuzena dauka familiengan, haurrengan eta langileengan.

Azkenean, apirilera iritsi ginen eta orduan esan zitzaion Haurreskolen Partzuergoari otsailean bidalitako proposamenean integrazioa ez zela baztertzen jasotzen zenez, hori bera eskaeratzat hartu behar zela. Baina gure ustez hori ez da administrazio-prozedura bat. Eskaera formalak ez dira interpretazio bidez egiten. Dagokion organoak onartu behar ditu, eta ondoren dagokion administrazioari bidali. Horregatik egiten dugu galdera. Zergatik ez zen integrazio-eskaera garaiz ekarri Osoko Bilkurara? Agian ez zenutelako erabaki bat hartu nahi, azkenean gaia ezohiko Osoko Bilkurara ekarri zen eta alde bozkatu zenuten, konbikzio gabe. Baina ordurako hilabeteak igaroak ziren eta horrek ondorioak izan zituen.

Apiriletik aurrera behin eta berriz galdetu genuen. Haurtzaro Ikastolak benetan planifikatuta al zuen HH2 gela? Erantzuna beti bera izan zen, bai, planifikatuta zegoela. Baina hortik aurrera kronologiak beste errealitate bat erakusten hasi zen.

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

Ekaina iritsi zen eta ordurako, EAJ-PNVk hilabeteak zeramatzan galdera berak egiten. Zer gertatuko zen HH2 gelarekin? Nola egingo zen trantsizioa? Eta zein izango zen prozedura administratiboa? Gure ustez, galdera horiek ez ziren politikoak, administrazioari buruzko galderak baizik. Horregatik esan genuen jarduera amaitu egin behar zela, eta ondoren dagokion administrazio-prozedura egin behar zela, Haurtzarok beharrezko baimen eta izapide guztiak bere gain hartzeko. Erantzuna, ordea, beti bera izan zen, eskualdaketarekin nahikoa zela esan zeniguten. Baina gaur espedienteak erakusten du jardueraren amaiera, baimenen egokitzapena eta administrazio-izapideak egin behar izan direla eta horregatik diogu berriro, EAJ-PNVk planteatzen zuena ez zen iritzi politiko bat, administrazio-errealitate bat zen.

Kronologiak aurrera egin zuen eta gertakariek beste errealitate bat erakutsi zuten. Ekainaren amaieran espazioaren lagapena oraindik ez zegoen onartuta eta guk berriro egin genuen galdera. Nola planifikatu zitekeen HH2 gela espazioa oraindik ofizialki laga gabe bazegoen? Azkenean, lagapena uztaileko ezohiko Osoko Bilkuran onartu zen, uztailean hau da, ordurako matrikulazio-prozesua amaituta zegoenean. Gelak antolatuta zeuden, familiek erabakiak hartuak zituzten. Horregatik egiten dugu galdera. Lagapena uztailean onartu bazen, benetan aukera errealik izan al zuen Haurtzaro Ikastolak HH2 gela 2026-2027 ikasturterako martxan jartzeko? Galdera hau ez da eztabaida politikoa, plangintzari buruzko galdera baizik eta uste dugu erantzun argia merezi duela.

Ekainaren lehen astean familiekin bilera orokorra egin zen eta bilera hartan lasaitasun mezua helarazi zitzaien. Esan zitzaien irailean dena prest egongo zela. Guk ere uste dugu familiei lasaitasuna transmititzea beharrezkoa dela. Baina gaur badakigu uztailaren 16ra arte prozesuaren funtsezko alderdiak oraindik ez zeudela itxita. Oraindik bilerak egiten ari zineten, espazioen antolaketa., ardurak, funtzionamendua, koordinazio etab. Oraindik erabakiak hartzen ari zineten. Horregatik egiten dugu galdera. Zein informaziotan oinarrituta eman zitzaien lasaitasun mezu hori familiei, uztailaren 16ra arte prozesuaren funtsezko alderdiak oraindik itxi gabe bazeuden? Ez dugu zalantzan jartzen familiei lasaitasuna emateko borondatea, baina administrazio baten betebeharra ere bada egoeraren benetako errealitatea gardentasunez azaltzea eta, batez ere, prozedurak garaiz amaitzea.

Badago beste gai bat ere, Obren gaia alegia. Hasieran ate komunikatzaile bat aurreikusi zen ondoren, leiho bat eta guk galdera egiten dugu. Zein izan da irtenbide horien justifikazio administratiboa? Gaur bi administrazio-zentro daude, bi titular desberdin, bi zuzendaritza, bi kudeaketa. Horregatik, gure ustez, bi zentroen arteko banaketa argia bermatu behar da. Ez da eztabaida arkitektonikoa, administrazio-antolaketari buruzko galdera baizik eta horregatik uste dugu azalpen argiak eman behar direla.

Kronologiak azken ondorio bat ere uzten du. Hasieran aurkeztutako proiektua ez da aurreikusi bezala gauzatu. Hasieran ez zenuten Haurreskolen Partzuergoan integratu nahi eta azkenean integratu egin da. Hasieran HH2 gela Haurtzaro Ikastolak hartzea aurreikusten zen. Gaur hori ere ez da gauzatu eta hori ez dugu guk esaten, espedienteak berak erakusten du prozesuak hasieran aurreikusitako bidea aldatu duela. Horregatik diogu arazoa ez dela izan amaieran irtenbide bat bilatu behar izatea, baizik eta irtenbide hori behar zen unean prest ez edukitzea.

Azkenik aipatu nahi dut, hilabete hauetan EAJ-PNVk egin dituen galdera askok ez dutela erantzunik jaso unean, baina denborak erakutsi du galdera horiek ez zirela alferrikakoak izan. Administrazioaren funtzionamenduari buruzko galderak ziren eta horregatik jarraitzen dugu gaur ere erantzunak eskatzen.

Hilabete hauetan EAJ-PNV ez da isilik egon, ez gara iritzia ematera mugatu. Kontrol lana egin dugu, dokumentazioa eskatu dugu, espedientea aztertu dugu, mozio bat aurkeztu genuen, behin eta berriz galderak egin ditugu eta informazioa eskatu dugu. Hori ez da oposizioaren kapritxo bat, hori oposizio baten betebeharra da eta gaur, espediente osoa ikusita, uste dugu egin ditugun galdera guztiak zilegi izan direla. Horregatik, lehengo egunean erregistratutako galderak ez dira polemika sortzeko izan, erantzunak jasotzeko baizik.

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

Langileei buruz ere hitz egin nahi dugu. Hasieran esan zeniguten ez zela hobekuntzarik egongo. Guk zalantzak planteatu genituen, informazioa eskatu genuen. eta plenora datuak ekarri genituen ere. Azkenean, batzordean bertan aitortu zenuten subrogatutako langileen lan-baldintzak hobetu egingo direla eta hori entzunda pozten gara, benetan, langileek hori merezi dutelako, baina beste behin ere, denborak erakutsi du gure zalantzek bazutela oinarria.

Eta amaitzeko, ideia bat argi utzi nahi dugu. EAJ-PNV ez dago hezkuntza-proiektu baten alde eta bestearen aurka. Ez dugu inoiz hori defendatu, guk defendatzen duguna da udal batek aukera berdinak bermatu behar dituela, eskaintza egiteko aukera berdinak, hazteko aukera berdinak, Baliabide berdinak eta udalaren tratamendu bera. Baina baita udalaren neutraltasuna ere, familien hautu-askatasuna errespetatuz. Hori ez da gaur esaten dugun zerbait, otsailean ere eskatu genuen eta gaur ere berdin eskatzen dugu.

Amaitzeko, ideia bat argi utzi nahi dugu, EAJ-PNV ez dago hezkuntza-proiektu baten alde eta bestearen aurka. Ez dugu inoiz hori defendatu, guk defendatzen duguna da udal batek aukera berdinak bermatu behar dituela. Eskaintza egiteko aukera berdinak, hazteko aukera berdinak, baliabide berdinak eta udalaren tratamendu bera. Baina baita udalaren neutraltasuna ere, familien hautu-askatasuna errespetatuz eta hori ez da gaur esaten dugun zerbait, otsailean ere eskatu genuen eta gaur ere berdin eskatzen dugu.”

Alkateak azpimarratu nahi izan du Hezkuntza Sailarekin adostutako erabakia dela baimenari uko egitearen ondorioa, 2027ko irailaren 1era atzeratzeko erabakia. Horiek horrela, akordio proposamena azaltzen du.

2025eko abenduaren 22ko Osoko Bilkuran, Oiartzungo Udalaren eta Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren izenean, eta Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeak 2025eko uztailaren 3an hartutako erabakia oinarri hartuta, erabaki zen Hezkuntza Sailari eskatzea Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoak 2 urteko gelen gainean duen hezkuntza-baimenari baja ematea, Partzuergoko kide den Haurtzaro Ikastolak baimen hori bere izenean eska zezan.

Modu horretan Haurtzaro ikastolak berreskuratuko luke udal partzuergoa eratu aurretik berea zen titularitateko baimena, 1995. urtean udal partzuergoa sortu zenean entitate honen esku utzi zuena, modu horretan 0-3 adin tartean haur-eskola zerbitzu integrala eman zezan. Horiek horrela, egun Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoak indarrean duen baimenean 2 urteko 5 unitate kenduko lirateke; aldi berean Haurtzaro ikastolak 2025eko uztailean zerbitzu hori emateko baimena eskatua zuen du.

Aipatu eskaerarekin Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak espedientea ireki eta izapidetzen ari den honetan, 2-3 urteko gelen Haurtzaro ikastolaren baimen eskaera berria 2026-2027 ikasturteko plangintzak ez duela barneratu jakinarazi da. Hori dela eta, Hezkuntza Sailarekin egindako bileraren ondorioz, adostu da baimen-aldaketa horrek 2027ko irailaren 1etik aurrerako ondorioak izatea.

Beraz, 2026-2027 ikasturtean, modu trantsitorioan, 2-3 urteko gelen zerbitzua Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoak ematen jarraitzea proposatu da. Horretarako 2025eko abenduan udal osoko bilkuran onartutako baja eskaeraren ondorioen data 2027ko irailaren 1era atzeratzea proposatzen da.

Udal kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera udal aurrekontuan badago diru-izendapen nahikorik 2026ko ikasturtean 2-3 urteko gelen haur-eskola zerbitzua finantzatzeko.

Horrenbestez, Udal Idazkariaren txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak, 2026ko uztailaren 23an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

Lehena.- Oiartzungo Udalaren eta Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren izenean, 2025eko abenduan udal osoko bilkuran onartutako 2 urteko gelen baja eskaeraren ondorioen data 2027ko irailaren 1era atzeratzea.

Bigarrena.- Arestian esandakoa egikaritzeko Urmendi eraikinean 5 gela, psikomotrizitate gela eta sukaldea Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoari erabiltzeko zesioan uztea, 2026ko irailaren 1etik 2027ko uztailaren 1era, 2 urteko haurreskola zerbitzua eman dezan. Lagapenaren espazioak jasotzen duen planoa eransten da.

Hirugarrena.- Erabaki honen berri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eta Haurtzaro ikastolari jakinaraztea.

Azalpenak amaitu ondoren bozketara ekin diote. Udal Idazkariak eta Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak, 2026ko uztailaren 23an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du Udalak eta Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoak 2-3 urteko gelen hezkuntza baimenari uko egitearen ondorioak 2027ko irailaren 1era atzeratzea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	9	EH Bildu
Aurka		
Abstentzioa	4	EAJ/PNV

Oihana Irastorza Gonzalez aretoan sartzen da.

-VI-

LANBARREN PARKE LOGISTIKOKO ARKOTZ ETA ARAÑABURU KALEEN (OIARTZUN) ETA AP-8-AREN ARTEKO EZPONDAREN ALDIZKAKO AZTERKETA GEOTEKNIKOAREN ZERBITZU-KONTRATUA HUTSIK DEKLARATZEA.

2026ko maiatzaren 27an, besteen artean, Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, aho batez, onartu zuen Lanbarren parke logistikoko Arkotz eta Arañaburu kaleen (Oiartzun) eta AP-8-aren arteko ezpondaren aldizkako azterketa geoteknikoaren zerbitzuaren espedienteari hasiera ematea, gastua eta baldintza agiriak onartzea eta dagozkion iragarkiak egitea.

Proposamenak aurkezteko 30 egun natural eman ziren eta epe horretan ez da eskaintzarik aurkeztu.

Horrenbestez, Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak, 2026ko uztailaren 23an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio

AKORDIOA

Bakarra.- Lizitazioa hutsik deklaratzea

Azalpenak amaitu ondoren bozketara ekin diote. Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak, 2026ko uztailaren 23an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu du Lanbarren parke logistikoko Arkotz eta Arañaburu kaleen (Oiartzun) eta AP-8-aren arteko ezpondaren aldizkako azterketa geoteknikoaren zerbitzu kontratua hutsik deklaratzea.

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

OIARTZUNGO
UDALA

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	14	10 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-VII-

2026RAKO ZERGA ORDENANTZAREN BIGARREN ALDAKETA: IBILGAILU ELEKTRIKOAK KARGATZEKO PUNTUEN ERABILERAGATIKO PREZIO PUBLIKOA EZARTZEA.

Lehenengoa. Udala 2026rako Zerga Ordenantzaren bigarren aldaketa izapidetzen ari da, 2026ER010003 espedientean.

Bigarrena. Espedienteak ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen erabileragatiko prezio publikoak arautzeko proposamena jasotzen du. Proposamena ordenantza fiskalen 7. atalean txertatzea aurreikusten da, 7.13 epigrafe gisa.

Hirugarrena. Mendi eta Ingurumen teknikariak txosten tekniko-ekonomikoa egin du, zerbitzua martxan jartzeko eta erabiltzaileei kobratu beharreko prezioa zehazteko. Txosten horretan jasotzen dira zerbitzuaren aurreikusitako kostua, prezio publikoaren bidez aurreikusitako diru-sarrerak eta ordenantza fiskalean txertatu beharreko testu-proposamena.

Laugarrena. Txostenean, teknikariak ibilgailu elektrikoak kargatzeko zerbitzuaren prezio publikoa 0,35 €/kWh izatea proposatzen du, BEZa barne, kalkulatutako kostu osoaren azpitik. Justifikazio memorian interes publikoko arrazoi hauek jaso ditu:

- udalerrian mugikortasun elektrikoa sustatzea;
- karga-puntuen benetako erabilera bultzatzea;
- zerbitzu berri baten hasierako ezarpena erraztea;
- prezio altuegi batek erabilera murriztea saihestea;
- energia-trantsizioaren eta mugikortasun jasangarriaren aldeko udal politika indartzea.

Bosgarrena. Idazkaritzak txosten juridikoa eman du, eta bertan ez da eragozpen juridikorik jasotzen espedientea Udalbatzaren Osoko Bilkuraren onespenera eramateko, aurretiaz Kontu-hartzailetzaren txostena eta Informazio Batzordearen irizpena jasota.

Seigarrena. Kontu-hartzailetzak txostena eman du, adieraziz espedientean jasotako interes publikoko arrazoiek -mugikortasun elektrikoa sustatzea, zerbitzuaren erabilera bultzatzea eta trantsizio energetikoaren aldeko udal politika indartzea- aukera ematen dutela proposatutako prezioa bideratzeko, organo eskudunak arrazoi horiek bere egiten baditu. Horrenbestez, ikuspegi ekonomiko-finantzariotik eta barne-kontroleko ikuspegitik ez du eragozpenik ikusi tramitazioarekin jarraitzeko, bertan jasotako oharrekin.

Horrenbestez, espedientean jasotako txosten tekniko-ekonomikoak, Kontu-hartzailetzaren txostena eta Idazkaritzaren txosten juridikoa ikusita eta Antolaketa eta kontu bereziak batzordeak, 2026ko uztailaren 23an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Oiartzungo Udalaren 2026rako Zerga Ordenantzaren bigarren aldaketa onartzea, 2026ER010003 espedientean jasotako baldintzetan.

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

Bigarrena.- Onartzea ordenantza fiskalen 7. atalean 7.13 epigrafea txertatzea, ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen erabileragatiko prezio publikoak arautzeko, akordio honen I. eranskinean jasotako testu osoaren arabera.
Hirugarrena.- Ezartzea 7.13 epigrafean jasotako ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen erabileragatiko prezio publikoak testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituela ondorioak.

Espedientean jasotako txosten tekniko-ekonomikoak, Kontu-hartzailetzaren txostena eta Idazkaritzaren txosten juridikoa ikusita eta Antolaketa eta kontu bereziak batzordeak, 2026ko uztailaren 23an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu du 2026rako zerga ordenantzaren bigarren aldaketa: ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen erabileragatiko prezio publikoa ezartzea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	14	10 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-VIII-

2026ko maiatzaren 7an hartutako erabakia, 925 zbk. Dekretuaren berri ematen du Alkateak.

“ 2026/02 KREDITU ALDAKETA

DEKRETUA

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2026-KALD-000002-00 zenbakiduna,

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Arestian aipatutako Foru Arauak 34.3 artikuluaren bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	**Izena**	**Gehikuntzak**
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	34.290,53
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	47.700,00
6	INBERTSIO ERREALAK	462.124,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		**544.114,53**

FINANTZAKETA

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

OIARTZUNGO
UDALA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	544.114,53
GUZTIRA		**544.114,53**

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

-IX-

2026ko uztailaren 17an hartutako erabakia, 1485 zbk. Dekretuaren berri ematen du alkateak.

"2026/07 KREDITU ALDAKETA

DEKRETUA

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2026-KALD-000007-00 zenbakiduna,

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Arestian aipatutako Foru Arauak 34.3 artikuluaren bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
6	INBERTSIO ERREALAK	505.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		**505.000,00**

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	505.000,00
GUZTIRA		**505.000,00**

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

-X-

Beste organoen jardueraren jarraipena Udal Idazkariak azaltzen du.

HARTUTAKO ERABAKIEN (ALKATETZAREN EBAZPENAK, GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK), PROTOKOLO GASTUEN, BIGARREN HIRU HILEKO DIRUZAINTZA EXEKUZIOAREN, AURREKONTUKOAK EZ DIREN KONTUEN, AURREKONTUETAKO BALANTZEAREN, DIRU-FLUXUEN EGOERAREN, DIRUZAINTZAREN ETA DIRU ZAINTZA KONTUAREN BERRI EMATEA.

1. Hartutako erabakiak:

Alkatearen ebazpenak:
2026eko ekainaren 20tik uztailaren 24ra arte.
Zk. 2026/1270tik 2026/1548ra.

Tokiko Gobernu Batzarra:
Bilkura honen deialdia egin zen eguna arte Tokiko Gobernu Batzarra birritan bildu da, 2026eko uztailaren 14an eta 28an, hain zuzen ere.

2. Protokolo eta ordezkapen gastuak eta dietak:

2026ko ekaineko gastuak:

Harpidetzak	59,00
Loreak- eskelak	50,00
Jardunaldiak, aurkezpenak	500,00
Bazkari, luntxak	304,50
Bidaiak	181,14
Ikurriñak, garaikurrak, plakak, opariak…	87,00
Guztira	**1.181,64€**

2026ko udal aurrekontuen apirila-ekaina hilabeteetako exekuzioaren berri ematen da, eranskin modura aurkezten den dokumentuaren bidez. Halaber, 2026ko aurrekontuetako balantzea, aurrekontuzkoak ez diren kontuak, diru-fluxuen egoera orria, diruzaintzaren, diruzaintza kontuen eta 2026ko diruzaintza planaren exekuzioa aurkezten zaizkio Udalbatzari. Gogorarazten da uneoro agiriok kontu-hartzailetzako bulegoan egoten dira.

-GZK I-

Azalpenak eman aurretik urgentzia bozkatzera ekiten diote. Aho batez onartua geratzen da beraz, Alkateak gaia azaltzen du.

MANUEL LEKUONA 3 HELBIDEAN DAGOEN OSASUN ZENTROAREN ARGITERIA BERRITZEKO OBRA BAIMENA

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

2026ko maiatzaren 21ean, Unai Zulueta Roales jaunak, Osakidetza- Euskal Osasun Zerbitzuaren ordezkari gisa, obra baimena eskatu du, Manuel Lekuona 3 helbidean dagoen osasun zentroaren argiteria berritzeko.

Halaber, eskaturiko baimenari Ordenantza Fiskal arautzailea eranstea eskatu du eta Udalbatzak obra hori interes berezikotzat jotzea, udal zergen ondorioetarako.

2026ko uztailaren 28an Oiartzungo Tokiko Gobernu Batzarrak, Manuel Lekuona 3 helbidean dagoen osasun zentroaren argiteria berritzeko, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuari obra baimena eman dio.

Horretaz gain, zergak kalkulatzeko oinarria 83.212,95 €-ko aurrekontua izanik, eskaturiko % 95eko hobaria udalbatzan herri mailako onura publikokoa deklaratzea proposatzen du. Onartuz gero, Zerga: 208,03 € eta bestela, Zerga: 4.160,65 €

Horrenbestez, Udal Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko uztailaren 28an hartutako erabakiaren baitan, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehena.- Manuel Lekuona 3 helbidean dagoen osasun zentroan egingo diren argiteria berritzeko lanak, herri mailako onura publikoa deklaratzea.

Bigarrena.- Eskaturiko %95eko hobaria aplikatzea, zergaren totala 208,03€ izanik.

Udal Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko uztailaren 28an hartutako erabakiaren baitan Udalbatzak, aho batez, onartu du Manuel Lekuona 3 helbidean dagoen osasun zentroaren argiteria berritzeko obra baimena.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	14	10 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-XI-

Eskari galderei dagokionez, Janire Mitxelenak hitza hartzen du eta aipatu nahi izan du Alkateak esan duenaren arabera, 2025eko abenduan egindako osoko bilkuran Udal Ikastola Partzuergoko baja tramitatu zen. Janire berak momentuan Udaleko hodeian egiaztatu ondoren, gai zerrendaz kanpo sartutako gaiak ez duela bajarik aipatzen dio, baimena eskualdatze moduan agertzen dela, horiek horrela, ez zela baja erabaki baizik eta eskuordetze bat erabaki zela adierazi du Janire andereak.

Ebazpen proposamenak jasotzen duena irakurtzen du “Oiartzungo udalaren eta Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren izenean, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoko zuzendaritza batzordearen 2025ko uztailaren 3ko hartutako erabakiaren ondorioz eskatzea udalak duen 2 urteko gelen hezkuntza baimena, partzuergoko kide den Haurtzaro ikastola eskualdatzeko horiek horrela, egun udalak indarrean duen baimena 2 urteko 5 unitate kenduko lirateke, Haurtzaro ikastola kooperatibak duen baimena 2 urteko 5 unitate gehitzeko.”

Alkateak nabarmendu du 2025eko abendua espedientean baja tramitea jasotzen dela eta beste galderarik ez dagoenez gaia landutzat jotzen du.

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

OIARTZUNGO
UDALA

Herritar batek hitza hartzen du.

Aurreko osoko bilkuran, edo agian haren aurrekoan, bajaren gaia aztertu zen, eta bertan adierazi zen izapidetutakoa eskualdaketa bat izan zela, ez baja bat; hala jasota dago, gainera, bilkuraren aktan.

Bestalde, udal gobernuak egindako izapideak zuzen egin direla iritziz gero, zalantzan jartzen du zergatik ez duten Udalak edo Haurtzaro Ikastolak errekurtsorik aurkeztu. Izan ere, haren ustez, administrazio-prozedura behar bezala bete bada, aurkeztutako errekurtsoa onartu beharko luke Hezkuntza Sailak.

Horrez gain, ikastetxeko jangelaren kudeaketa edo ardura zeinen esku geratuko den galdetzen du.

Azkenik, adierazten du gai hau Eusko Legebiltzarrean ere jorratu dela, eta bertan ordezkaritza duten talde politiko guztiek aitortu dutela auzi honetan hutsune edo gabeziaren bat egon dela. Hala ere, zehazten du hori ez dela orain salatzen duena, lehendik ere esan zuen eta.

Alkateak hitzar hartzen du eta azaldu du ekarpenak aktan jasoak geratuko direla eta eskerrak eman dizkio esandakoarengatik.

Azkenik, azpimarratu du Hezkuntza sailarekin elkarlanean aritzea lehenesten dutela, adostasun batera iritsi direla eta jangelari dagokionez, jakinaren gainean daude bi zentro daudela eta hauek desberdindu egin behar direla eta horretan lanean ari direla.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 19:00ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea	Idazkaria
OIARTZUNGO UDALA	OIARTZUNGO UDALA
Sin.: Joana Mendiboure	Sin.: Maria Victoria Joaristi Olariaga

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

OIARTZUNGO UDALA

4. GAIA HITZARMENA

LEZOKO, OIARTZUNGO ETA PASAIAKO UDALEN ETA EMAÚS GIZARTE FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, GIZARTE BAZTERKETAKO EGOERAN EDO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONENTZAKO EGUNEKO ARRETA ZENTROAN ZERBITZU BERRITZAILEA GARATZEKO.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LOS AYUNTAMIENTOS DE LEZO, OIARTZUN, PASAIA Y EMAÚS FUNDACIÓN SOCIAL, PARA EL DESARROLLO DE UN SERVICIO INNOVADOR EN EL CENTRO DE ATENCIÓN DIURNA PARA PERSONAS EN SITUACIÓN O RIESGO DE EXCLUSIÓN SOCIAL

BILDU DIRA

Alde batetik, **Mikel Arruti Salaberria jauna**, Lezoko Udaleko alkatea, udal horren izenean eta ordezkaritzan jardunez, Udalaren osoko bilkurak 2026ko uztailaren 29an hartutako erabakiari jarraiki.

Bestetik, T**eo Alberro Bilbao** jauna, Pasaiako Udaleko alkatea, Pasaiako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, Udalaren osoko bilkurak 2026ko uztailaren 23an hartutako erabakiari jarraiki.

Bestetik, **Joana Mendiboure Garaiar andrea**, Oiartzungo Udaleko alkatea, udal horren izenean eta ordezkaritzan jardunez, 2026ko uztailaren 29ko udalbatzaren erabakiaren arabera.

Eta bestetik, **Aitziber Zubillaga Murguiondo** andrea, Emaús Gizarte Fundazioaren izenean eta ordezkaritzan (IFK: G20486825), aurrerantzean Emaús Fundación Social, 2024ko martxoaren 1ean Donostian Ana Isabel Jaurrieta Alegriaren notariotzan emandako 220 zenbakiko notario-ahalordearen indarrez.

Alderdi guztiek elkarri aitortzen diote hitzarmen hau formalizatzeko behar adinako gaitasun juridikoa, eta, ondorio horietarako, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

Lezo, Oiartzun eta Pasaiako udalek, beren eskumen propioen artean, gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea (13.

REUNIDOS

De una parte, el Sr. **Mikel Arruti Salaberria alcalde del Ayuntamiento de Lezo**, en nombre y representación de dicho Ayuntamiento, actuando en virtud de acuerdo adoptado por el pleno municipal con fecha 29 de julio de 2026.

De otra parte, el **Sr. Teo Alberro Bilbao alcalde del Ayuntamiento de Pasaia**, en nombre y representación de dicho Ayuntamiento, actuando en virtud de acuerdo adoptado por el pleno municipal con fecha 23 de julio de 2026.

De otra parte, la Sra. **Joana Mendiboure Garaiar, alcaldesa del Ayuntamiento de Oiartzun,** en nombre y representación de dicho Ayuntamiento, actuando en virtud de acuerdo adoptado por el pleno municipal con fecha 29 de julio de 2026.

Y de otra parte, la Sra. **Aitziber Zubillaga Murguiondo,** en nombre y representación de Emaús Fundación Social (CIF nº G20486825), en adelante Emaús Fundación Social, en virtud del poder notarial con protocolo número 220 expedido en San Sebastián el 01 de marzo del 2024 en la notaría de Ana Isabel Jaurrieta Alegría.

Las partes se reconocen recíprocamente capacidad jurídica suficiente para formalizar el presente convenio y, a tal efecto:

MANIFIESTAN

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

apartatua) eta diru-sarrerak bermatzearen eta gizarteratzearen arloko antolaketa, programazioa eta kudeaketa (14. apartatua) dituzte, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1 artikuluaren arabera

Lezoko, Oiartzungo eta Pasaiako udalek urteak daramatzate eskualde mailako lankidetza estrategikoa garatzen, gizarteratzearen arloan baliabide eta tresna bateratuak sortzean oinarritua.

Sinatzen duten udalek eskumena dute Eguneko Arreta Zerbitzua (aurrerantzean EAZ) emateko, udal-titulartasunekoa, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonei zuzendua, eta kudeaketa elkarrekin antolatzea erabaki dute, administrazioen arteko lankidetza-erregimenean, Lezoko Jaizkibel hiribideko 4. zenbakian dagoen Eguneko Arreta Zentroaren bidez. Zentro horren erabilera eta funtzionamendua hiru udalerrien artean partekatuko da.

Zerbitzua martxan jartzeko eta behar bezala kudeatzeko, esku-hartze eredu berritzaile bat ezartzea beharrezkoa jotzen da; eredu horrek integratuko ditu harreman laguntza, komunitate esku-hartzea, gobernantza kolaboratiboa eta pertsonarengan zentratutako arreta. Horretarako, ezinbestekoa da arlo horietan esperientzia teknikoa eta gaitasun egiaztatua duen erakunde kolaboratzaile baten parte-hartzea.

Emaús Gizarte Fundazioa irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko erakundea da, eta ibilbide egiaztatua du gizarte laguntzako prometan, eskuhartze sozio-hezitzailean, bitartekaritzan eta komunitate dinamizazioan, autonomia pertsonalaren sustapenean eta gizarte bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonei laguntzan; baditu zerbitzua emateko behar diren baliabide teknikoak, profesionalak eta metodologikoak, bere esperientzia kontrastatuan eta lurraldeko administrazio publiko desberdinekin sinatutako hitzarmenetan oinarrituta.

Que los municipios de Lezo, Oiartzun y Pasaia ostentan como competencias propias, conforme al artículo 17.1 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, la ordenación, planificación y gestión de los servicios sociales (apartado 13), así como la ordenación, programación y gestión en materia de garantía de ingresos e inclusión social (apartado 14).

Que los ayuntamientos de Lezo, Oiartzun y Pasaia comparten desde hace años un trabajo estratégico comarcal basado en la creación de recursos y herramientas compartidas en torno a la inclusión social.

Que los ayuntamientos firmantes son competentes para la prestación del Servicio de Atención Diurna (en adelante, CAD), de titularidad municipal, dirigido a personas en situación o riesgo de exclusión social, y que han optado por articular su gestión de forma conjunta, en régimen de cooperación interadministrativa, a través del Centro de Atención Diurna sito en la Avenida Jaizkibel nº 4 de Lezo, cuyo uso y funcionamiento será compartido entre los tres municipios.

Que la puesta en funcionamiento y gestión del servicio requiere la implantación de un modelo de intervención innovador que integre el apoyo relacional, la intervención comunitaria, la gobernanza colaborativa y la atención centrada en la persona, siendo preciso para ello contar con una entidad colaboradora que acredite experiencia técnica y solvencia profesional en dichos enfoques.

Que Emaús Fundación Social es una entidad de iniciativa social sin ánimo de lucro que cuenta con una acreditada trayectoria en el desarrollo de programas de acompañamiento social, intervención socioeducativa, mediación y dinamización comunitaria, promoción de la autonomía personal y apoyo a personas en situación o riesgo de exclusión social, disponiendo de los medios técnicos, profesionales y metodológicos necesarios para la prestación del servicio, tal y como se desprende de su experiencia contrastada y de los convenios suscritos con distintas

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

Emaús Gizarte Fundazioak baheketa edo *screening* tresna bat diseinatu du erreferentziako gizarte zerbitzuetara jotzen duten pertsonen gizarte arrisku maila edo konplexutasuna zehazteko. Tresna horri esker, hasierako hurbilketa diagnostiko bat egin daiteke, arriskua dagoen ala ez identifikatu eta mailakatzeko, ibilbide bereizi posibleak preskribatzeko abiapuntu gisa. Tresnak aplikazio arin eta erraza izan nahi du, gizarte zerbitzuetako profesionalei laguntzeko arreta premia konplexuak dituzten pertsonak identifikatzen laguntzeko, eta beharrezkoak diren laguntza mailaren intentsitatea eta testuinguruak sailkatzeko.

EAZ lehen mailako udal arreta zerbitzua da, bere araudi espezifikoak arautua, eskakizun eta intentsitate baxuko baliabide gisa egituratua; eta helburu hauek ditu: oinarrizko beharrak asetzea, esku-hartze sozio-hezitzailea eta psikosoziala, laguntza sozial pertsonalizatua, tokiko harreman laguntzen ekosistemaren aktibazioa eta gizarteratzea sustatzea hitzarmena sinatzen duten udalen lurralde eremuan.

EAZen proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako plangintza eta arau-tresna nagusiekin lerrokatzen da (2030 Agenda, 2020-2030 Plan Estrategikoa, Gipuzkoako Gizarteratzearen II. Plana *Elkar-Ekin* 2022–2026); baita Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen helburuekin ere, zeinak gizarte zerbitzuetarako eskubide unibertsala bermatzen dituen eta gobernantza kolaboratiboaren eta erantzukizun instituzionalaren printzipioak indartzen dituen. Horregatik, proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarteratze Zerbitzuaren laguntza teknikoa eta lankidetza ditu.

Alderdi guztiek beharrezkotzat jotzen dute lankidetza teknikorako esparru egonkor bat formalizatzea, Eguneko Arreta Zerbitzuaren garapenean udalen eta Emaús Gizarte Fundazioaren esku-hartze bateratua antolatu eta koordinatzeko; horrela, erakunde bakoitzaren ekarpenak artikulatu, jardueren plangintza eta exekuzioan elkarlana sustatu,

administraciones públicas del territorio.

Que Emaús Fundación Social ha diseñado una herramienta de cribado o screening para determinar el nivel de riesgo social o complejidad de personas que acuden a los servicios sociales de referencia, que permite realizar un diagnóstico inicial y de aproximación a fin de identificar la existencia o no de riesgo, así como su gradación, como punto de partida para prescribir posibles itinerarios diferenciados. Como tal, la herramienta pretende una aplicación y uso ágil y sencillo, diseñada para ayudar a las y los profesionales de los Servicios Sociales a identificar personas con necesidades de atención complejas, clasificar la intensidad de los apoyos y contextos en los que se precisan, por parte de los servicios sociales.

Que el CAD constituye un servicio municipal de atención primaria, regulado por su Reglamento específico, configurado como un recurso de baja exigencia e intensidad, orientado a la cobertura de necesidades básicas, la intervención socioeducativa y psicosocial, el acompañamiento social personalizado, la activación del ecosistema local de apoyos relacionales y la promoción de la inclusión social en el ámbito territorial de los ayuntamientos firmantes.

El proyecto del CAD se alinea con los principales instrumentos normativos y de planificación social de Gipuzkoa, promovidos por la Diputación Foral (agenda 20-30, plan estratégico 2020-30, II Plan de Inclusión Social de Gipuzkoa Elkar-Ekin 2022–2026) con los objetivos de la Ley 12/2008 de Servicios Sociales, que garantiza el derecho universal a los servicios sociales y refuerza los principios de gobernanza colaborativa y corresponsabilidad institucional. Por ello el proyecto cuenta con el apoyo técnico y colaboración del servicio de Inclusión social de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Que las partes consideran necesario formalizar un marco estable de colaboración técnica que ordene y coordine la intervención conjunta de los ayuntamientos y de Emaús Fundación Social en el desarrollo del Servicio de Atención

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

eta bakoitzari dagozkion eskumenen arabera erantzukizunak mugatu ahal izateko. Lankidetza horrek ez du kontratu-izaerarik eta ez dakar ordainpeko zerbitzu-ematerik.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 69. artikuluak honako hau xedatzen du: *"Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek hitzarmenak ezar ditzakete irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeekin, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan sartutako prestazio eta zerbitzuen horniketarako; baldin eta, erakundearen jarduera edo dagokion prestazioa edo zerbitzua berezia, premiazkoa, berritzailea edo esperimentala izaki, itun-araubidea aplikatzea komeni ez bada, ituna nola arautu den aintzat hartuta, eta betiere hori behar bezala egiaztatzen bada".*

Era berean, 73. artikuluak honako hau xedatzen du: *"Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartuta ez dauden beste prestazio eta zerbitzuak eskuratzea sustatu eta/edo babestu ahal izango dute, bai eta gizarte-zerbitzuen eremuko beste jarduera batzuk egin daitezen sustatzea ere, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen plangintza estrategikoak ezarritako jardunbide orokorretara egokitzen badira eta irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeek garatzen badituzte"*. Halaber, xedatzen du bereziki aintzat hartuko direla "pertsonak artatzeko prestazio eta zerbitzu berriak martxan jartzearekin lotuta dauden jarduera berritzaile eta esperimentalak".

EAZen irekierak auzokideen artean erresistentziak sor ditzake, segurtasunari, higieneari edo auzoaren irudiari lotutako aurreiritzi, estigma edo beldurretan oinarrituta. Erreakzio horiek, behar bezala lantzen ez badira, gatazka irekiak eragin ditzakete, gizartearen gaitzespena, bai eta erabiltzaileen eta baliabidearen beraren estigmatizazioa ere.

Horregatik, Lezo, Pasaia eta Oiartzungo udalek Gizagune Fundazioa kontratatu dute, gatazken kudeaketan eta bizikidetzaren sustapenean Diurna, posibilitando la articulación de las aportaciones de cada entidad, la cooperación en la planificación y ejecución de las actuaciones, y la delimitación de responsabilidades conforme a las competencias que corresponden a cada una, sin que esta colaboración tenga naturaleza contractual ni suponga la prestación de un servicio a título oneroso.

Que la ley de Servicios Sociales 12/2008, de 5 de diciembre, en su artículo 69 recoge: "*Las administraciones públicas vascas podrán establecer convenios con entidades de iniciativa social sin ánimo de lucro para la provisión de prestaciones y servicios integrados en el catálogo del Sistema Vasco de Servicios Sociales en aquellos supuestos en los que la singularidad de la actividad de la entidad o de la prestación o servicio del que se trate, su carácter urgente o su carácter innovador y experimental, aconsejen la no aplicación del régimen de concierto*".

En su artículo 73 recoge lo siguiente: *"Las administraciones públicas vascas podrán fomentar y/o apoyar el acceso a otras prestaciones o servicios no incluidos en el catálogo de prestaciones y servicios del sistema vasco de servicios sociales,... siempre que se adecuen a las orientaciones generales establecidas por la planificación estratégica de las administraciones públicas vascas y que sean desarrolladas por entidades de iniciativa social sin ánimo de lucro",* recoge que serán objeto de especial consideración las siguientes actividades "*las actividades innovadoras y experimentales en relación con la puesta en marcha de nuevas prestaciones y servicios de atención a las personas*".

La apertura del CAD puede generar resistencias vecinales basadas en prejuicios, estigmas o temores relativos a la seguridad, la higiene o la imagen del barrio. Estas reacciones, si no se abordan adecuadamente, pueden derivar en conflictos abiertos, rechazo social e incluso en la estigmatización tanto de las personas usuarias como del recurso en sí.

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

espezializatutako erakundea, zeinak hainbat metodologiaren bidez adostasunak sortzea eta elkarrizketan oinarritutako erabakiak hartzeko prozesuak bultzatzea sustatzen duen.

Helburua da, EAZ ireki aurretik nahiz ondoren, desinformazioa murriztea, komunitate loturak indartzea eta zentroaren integrazio prozesua erraztea, bizikidetza inklusiboaren logikatik.

Esperientzia berritzaile gisa, proiektuak hiru printzipio nagusi ditu ardatz: pertsonarengan zentratutako arreta inklusiora aplikatzea; ekintza komunitarioa inklusio-estrategia gisa; eta erakundeen arteko gobernantza kolaboratiboa.

Proiektu pilotu gisa, proiektua martxan jartzen denean haren aplikazioa neurtzeko behar diren adierazleak identifikatu nahi dira. Hala, inplementazioaren fideltasuna ebaluatu ahal izango da, eta ereduaren transferigarritasuna eta eskalagarritasuna bermatu.

Esku hartzeko eredu berritzaile hori ezartzeko, harreman-laguntzaren integrazioan, esku-hartze komunitarioan, lankidetza-gobernantzan eta pertsonarengan oinarritutako arretan oinarritua, eta, gainera, proiektu eragile izateko pentsatua, erakunde espezializatu baten parte-hartzea behar da, proiektuaren ebaluazio zorrotz, objektibo eta zientifikoki funtsatua egin dezan.

Helburu horrekin, Lezoko eta Oiartzungo Udalek Pasaiako Udalari eskatu diote gizarteratze arloan ikerketa aplikatuan espezializatuta dauden erakundeekin harremanetan jartzeko eta hautaketa prozesua hasteko.

Azkenean hautatuko den taldea proiektuaren kanpo-ebaluazioko lanak egiteko kontratatuko da, eta proiektuaren talde eragilean ere parte hartuko du. Zerbitzu hori hiru zati berdinetan finantzatuko da, eta urtean ez da 18.000,00 €-tik gorakoa izango.

Por ello, los Ayuntamientos de Lezo, Pasaia y Oiartzun han contratado a la Fundación Gizagune, entidad especializada en la gestión de conflictos y la promoción de la convivencia, que, mediante la aplicación de diversas metodologías, impulsa la generación de consensos y el desarrollo de procesos de toma de decisiones basados en el diálogo.

Se busca previa la apertura del CAD, así como con posterioridad reducir la desinformación, fortalecer los vínculos comunitarios y facilitar un proceso de integración del centro desde una lógica de convivencia inclusiva.

Como experiencia innovadora, el proyecto cuenta con tres principios que constituyen su eje: aplicar la Atención Centrada en la Persona a la inclusión; la acción comunitaria como estrategia de inclusión; y la gobernanza colaborativa entre instituciones.

Como proyecto piloto se pretende identificar los indicadores necesarios para medir su aplicación, cuando el proyecto se ponga en marcha. De este modo, se podrá evaluar la fidelidad de la implementación y garantizar la transferibilidad y escalabilidad del modelo.

La implantación de este modelo de intervención innovador, basado en la integración del apoyo relacional, la intervención comunitaria, la gobernanza colaborativa y la atención centrada en la persona, y concebido además con vocación de proyecto tractor, requiere la participación de una entidad especializada que lleve a cabo una evaluación rigurosa, objetiva y científicamente fundamentada del proyecto.

Con este objetivo, los Ayuntamientos de Lezo y Oiartzun han solicitado al Ayuntamiento de Pasaia que contacte con entidades especializados en investigación social aplicada al ámbito de la inclusión social, inicie el proceso de selección.

El equipo finalmente seleccionado será contratado para desarrollar las labores de evaluación externa del proyecto y participará, asimismo en el equipo motor del proyecto. La financiación de este servicio se realizará en

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

Azaldutakoa kontuan hartuta, ERABAKI DUTE hitzarmen hau sinatzea. Hona hemen hitzarmenaren klausulak:

KLAUSULAK

Lehen klausula – Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen helburua da Lezoko, Oiartzungo eta Pasaiako udalen eta Emaus Gizarte Fundazioaren arteko lankidetza teknikoaren esparrua arautuko duten baldintzak ezartzea, Eguneko Arreta Zentroaren Zerbitzua elkarrekin garatzeko, harreman-laguntza, esku-hartze komunitarioa, lankidetza-gobernantza eta pertsonarengan oinarritutako arreta barne hartzen dituen esku-hartze ereduaren arabera, alde bakoitzaren jarduerak eta ekarpenak artikulatuz, zerbitzu berritzaile bat sustatzeko helburuarekin, Lezo, Pasaia eta Oiartzun udalerrietako gizarte bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonei zuzenduta.

Bigarren klausula – Zerbitzuaren izaera

Eguneko Arreta Zentroa (aurrerantzean, EAZ) lehen mailako udal arreta zerbitzua da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan integratua, 12/2008 Legearen 22.1.7 artikuluaren eta 185/2015 Dekretuaren arabera.

Hala ere, EAZ gizarte laguntzako zerbitzu berritzaile gisa eratzen da, udalen arteko lankidetza erregimenean eta lankidetza publiko-pribatuaren esparruan garatua, eta proiektu pilotu gisa ulertua, laguntza eredu bat probatzera eta finkatzera bideratua, zorroan aurreikusitako prestazioak osatu eta zabalduko dituena harreman laguntzaren, esku-hartze komunitarioaren eta gizarte babes pertsonalizatuaren arloetan.

Zerbitzua honako alderdi hauetan oinarritutako esku-hartze eredu baten arabera egituratzen da: Pertsonarengan Zentratutako Arreta (PZA), ibilbide pertsonalizatuen eraikuntza, kalte murrizketa, tokiko harreman laguntzen

tres partes iguales y no superará los 18.000,00€ anuales.

Que, en virtud de lo expuesto, ACUERDAN suscribir el presente convenio, que se regirá por las siguientes:

CLÁUSULAS

Cláusula Primera – Objeto del Convenio

El presente convenio tiene por objeto establecer las condiciones que regularán el marco de colaboración técnica entre los Ayuntamientos de Lezo, Oiartzun y Pasaia y Emaús Fundación Social para el desarrollo conjunto del Servicio del Centro de Atención Diurna, de acuerdo con el modelo de intervención que integra el apoyo relacional, la intervención comunitaria, la gobernanza colaborativa y la atención centrada en la persona, articulando las actuaciones y aportaciones de cada parte con el fin de impulsar un servicio innovador dirigido a personas en situación o riesgo de exclusión social de los municipios Lezo, Pasaia y Oiartzun.

Cláusula Segunda – Naturaleza del servicio

El Centro de Atención Diurna (en adelante, CAD) constituye un servicio municipal de atención primaria, integrado en la Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales conforme al artículo 22.1.7 de la Ley 12/2008 y al Decreto 185/2015.

Ahora bien, el CAD se configura como un servicio innovador de apoyo social, desarrollado en régimen de cooperación intermunicipal y en el marco de colaboración público-privada, y concebido como proyecto piloto, orientado a testar y consolidar un modelo de atención que complementa y amplía las prestaciones previstas en la Cartera en materia de apoyo relacional, intervención comunitaria y acompañamiento social personalizado.

El servicio se articula desde un modelo de intervención basado en la Atención Centrada

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

ekosistemaren aktibazioa eta gizarteratze nahiz komunitate partaidetza prozesuen sustapena. Eta prebentzio-, harreman- eta hurbiltasun-dimentsioak integratzen ditu.

Zerbitzuaren garapenean parte hartu ahal izango dute udaleko lehen mailako gizarte zerbitzuez gain, bigarren mailako arreta espezializatuko zerbitzuek, Eskualdeko Laguntza Zerbitzu Foralak (SEFAC), hirugarren sektoreko beste erakunde eta elkarte mugimenduek; gizarte-zerbitzuen sistemaren mailak artikulatzen dituen elkarlaneko gobernantza-eredu baten esparruan, esku-hartzeen koherentzia, jarraitutasuna eta osagarritasuna indartzearren.

Hirugarren klausula – Hartzaileak

Zerbitzuaren hartzaile izango dira 18 urtetik gorako pertsonak edo adingabe emantzipatuak, baldin eta udal gizarte zerbitzuek egindako balorazio profesionalaren ostean, gizarte edo etxebizitza bazterkeriako egoeran edo arriskuan badaude, eguneroko bizitza garatzeko behar adinako laguntzarik ez badute, laguntza soziala, harreman laguntza edo esku-hartze sozio-hezitzailea behar badute, eta gutxienez hiru hilabeteko benetako bizilekua egiaztatzen badute hitzarmena sinatzen duten udalerrietako batean; betiere, araudian aurreikusitako premiazko jarduketak kaltetu gabe.

Laugarren klausula – Zerbitzuaren ezaugarriak

Lezo, Oiartzun eta Pasaiako udalerrietan gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonei zuzendutako Eguneko Arreta Zentroak, aldi baterako intentsitate eta eskakizun txikiko arreta eskainiko du. Baliabide horretan, gizarte bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden pertsonek oinarrizko premiak, elikadura eta higienea ase ahal izango dituzte; eta bertara sartzeko aurretiazko preskripzio teknikoa beharko da (presaz sartzeko plazetan izan ezik).

Zentroak erreferentziazko espazio izan nahi du, bai egoera zaurgarrienean dauden pertsonentzat, bai zaintza eta harreman

en la Persona (ACP), la construcción de itinerarios personalizados, la reducción de daños, la activación del ecosistema local de apoyos relacionales y la promoción de procesos de inclusión y participación comunitaria, integrando dimensiones preventivas, relacionales y de proximidad.

En el desarrollo del servicio podrán intervenir además de los servicios sociales municipales de atención primaria, los servicios especializados de la atención secundaria, el Servicio Foral de Acompañamiento Comarcal (SEFAC), así como otras entidades del tercer sector y movimiento asociativo en el marco de un modelo de gobernanza colaborativa que articula los distintos niveles del sistema de servicios sociales, reforzando la coherencia, continuidad y complementariedad de las intervenciones.

Cláusula Tercera – Personas destinatarias

Serán destinatarias del servicio las personas mayores de 18 años, o menores emancipadas, que, previa valoración profesional de los servicios sociales municipales, se encuentren en situación o en riesgo de exclusión social o residencial, carezcan de apoyos suficientes para el desarrollo de su vida cotidiana, requieran acompañamiento social, apoyo relacional o intervención socioeducativa y acrediten residencia efectiva de tres meses en alguno de los municipios firmantes, sin perjuicio de las actuaciones de carácter urgente previstas en el Reglamento

Cláusula cuarta - Características del servicio

El centro de atención diurna dirigido a personas en situación de riesgo y/o exclusión social de los municipios de Lezo, Oiartzun y Pasaia ofrecerá un dispositivo al que acudir durante el día, de uso temporal, de baja exigencia e intensidad de apoyos, donde las personas en situación de riesgo de exclusión o en exclusión social puedan cubrir necesidades básicas de alimentación e higiene, de acceso bajo prescripción técnica previa (salvo en el caso de plazas de acceso

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

laguntzen ekosistema bat sortzeko; horrela, eskakizun baxuko komunitate zaintzaren eredutik, pertsonek euren bizi kalitatea hobetzeko prozesu batean pixkanaka inplikatzeko aukera izan dezaten. EAZk honako prestazioak eskainiko ditu:

• **Oinarrizko prestazioak:** informazioa, balorazioa eta jarraipena, diagnostikoa, esku-hartze sozio-hezitzailea eta psikosoziala, laguntza soziala. Emakumeen ahalduntzea sustatuko da indarkeria matxistaren prebentziorako.

• **Prestazio osagarriak:** mantenua, higiene pertsonala (emakumeentzat hilekoaren higienerako baliabideak barne), garbiketa zerbitzua, kontsigna, mediku errezetarik behar ez duten botikak, aisia eta denbora librerako baliabideak.

• **Zaintzen eta harreman laguntzen tokiko ekosistema aktibatzeko eta parte-hartzea sustatzeko prestazioak:** informazio kanpainak, lankidetza tokiko elkarteekin, erabiltzaileen batzarra, komunitateari irekitako jarduerak.

EAZk guztira **18 plaza** izango ditu: 15 sarbide arruntekoak eta 3 premiazko edo berehalako sarbiderakoak, zerbitzuaren araudian eta udal gizarte zerbitzuek ezarritako prozedura teknikoetan jasotakoarekin bat etorriz.

Plangintza operatiboari eta udalen arteko finantza banaketari dagokienez, 15 plaza arruntak honela esleitzen dira:

- 8 plaza Pasaiako Udalari
- 5 plaza Oiartzungo Udalari
- 2 plaza Lezoko Udalari

Larrialdiko hiru plazek udalaz gaindiko izaera izango dute, hiru udalen artean partekatuta egongo dira, eta berehalako esku-hartzea behar duten egoeretarako bakarrik aktibatuko dira, Zerbitzuaren Erregelamenduan eta Barne Esparru Operatiboan ezarritako irizpide eta prozeduren arabera.

urgente).

Pretende ser centro de referencia tanto para las personas en situación de mayor vulnerabilidad como para la generación de un ecosistema de cuidados y apoyos relacionales, a fin de abordar un modelo de atención y cuidados comunitarios desde la baja exigencia, que permita a las personas ir comprometiéndose en un proceso de mejora de su calidad de vida. El CAD ofrecerá los siguientes prestaciones:

• **Prestaciones básicas:** información, valoración y seguimiento, diagnóstico, intervención socio-educativa y psicosocial, y acompañamiento social. Se promoverá el empoderamiento de las mujeres para la prevención de las violencias machistas.

• **Prestaciones complementarias**: manutención, higiene personal (recursos para la higiene menstrual de las mujeres), lavandería, consigna, medicamentos que no requieran receta médica, recursos para el ocio y tiempo libre.

• **Prestaciones dirigidas a la activación del ecosistema local de cuidados y apoyos relacionales y a la participación**: campañas informativas, colaboración con asociaciones locales, asamblea de usuarias y usuarios, actividades abiertas a la comunidad.

El CAD contará con un total de **18 plazas**, distribuidas en 15 plazas de acceso ordinario y 3 plazas destinadas a situaciones de urgencia o acceso inmediato, de conformidad con lo previsto en el Reglamento del CAD y con los procedimientos técnicos establecidos por los servicios sociales municipales.

A efectos de planificación operativa y de distribución financiera entre los ayuntamientos firmantes, las 15 plazas ordinarias se asignan del siguiente modo:

- 8 plazas al Ayuntamiento de Pasaia,
- 5 plazas al Ayuntamiento de Oiartzun,
- 2 plazas al Ayuntamiento de Lezo.

Las 3 plazas de urgencia tendrán carácter supramunicipal, serán de uso compartido entre

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

Plazak esleitzeak ez du baldintzatuko udalek premiazko sarbide arloan duten erantzukizuna, eta ez du mugatuko plazak egokitzeko aukera, aldi baterako edo salbuespenez, erabiltzaile baten egoerak hala eskatzen duenean, aldez aurretik balorazio teknikoa eginda eta zerbitzuaren gobernantzaren esparruan.

Zerbitzu hori hiru udalerriek dituzten baliabide komunitarioez baliatuko da, eta komunitateari ere irekita egongo da. Zerbitzuko erabiltzaileek komunitate bizitzan integratzeko, euren bizi kalitatea hobetzeko eta komunitateko jardueretan parte hartzeko aukera izango dute; aldi berean, komunitateak berak ere proiektuaren parte aktibo izan ahal izango du, bertako jarduera eta zerbitzuetan lagunduz.

Zentroa 09:00etatik 15:00etara irekita egongo da. Hala ere, teknikariak bertan egongo dira 08:30etik 15:45era.

EAZ proiektu pilotu erakusgarria da, gizarteratzearen arloko esparru estrategikoekin bat datorrena. Haren helburuetako batzuk dira beste udalerri edo zerbitzu batzuetara ezagutza transferitzea, esperientziak eta ebidentziak sortzea, bereziki laguntza komunitarioak artikulatzeari, erakunde arteko koordinazioari eta esku-hartze pertsonalizatuari dagokienez.

Bosgarren klausula – Araubide-esparrua

Eguneko Arreta Zentroaren funtzionamendua, sarbide prozedurak, erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak, bizikidetza arauak, esku-hartze neurriak, zerbitzuaren oinarrizko antolaketa, langileen funtzioak eta koordinazio organoak EAZen Zerbitzuaren Erregelamenduak arautuko ditu; araudi hori Lezo, Oiartzun eta Pasaiako Udalek onartu dute, eta hitzarmen honen ondorioetarako erreferentziazko dokumentu gisa txertatu da.

Erregelamenduaz gain, zerbitzuak Barne

los tres ayuntamientos y se activarán exclusivamente para situaciones que requieran intervención inmediata, de acuerdo con los criterios y procedimientos establecidos en el Reglamento del Servicio y en el Marco Operativo Interno.

La asignación de plazas no condiciona la responsabilidad de los ayuntamientos en materia de acceso urgente ni limita la posibilidad de adaptación de las plazas, temporal o excepcionalmente, cuando así lo requiera la situación de una persona usuaria, previa valoración técnica y en el marco de la gobernanza del servicio.

Este servicio hará uso de los recursos comunitarios que los tres municipios disponen y también estará abierto a la comunidad. Las personas usuarias del servicio podrán integrarse en la vida comunitaria, mejorar su calidad de vida, fomentar su participación en las actividades y vida de la comunidad, la comunidad también podrá ser parte activa del proyecto, colaborando en las actividades y servicios del mismo.

El centro permanecerá abierto al público en horario de 9:00 a 15:00. No obstante, el personal técnico estará presente en el centro desde las 8:30 hasta las 15:45.

El CAD se constituye como proyecto piloto y demostrativo, alineado con los marcos estratégicos vigentes en materia de inclusión social, y está concebido para generar conocimiento, experiencia y evidencias transferibles a otros municipios o servicios, especialmente en torno a la articulación de apoyos comunitarios, la coordinación interinstitucional y la intervención personalizada.

Cláusula quinta – Marco Regulador

El funcionamiento del Centro de Atención Diurna, los procedimientos de acceso, los derechos y deberes de las personas usuarias, las normas de convivencia, las medidas de intervención, la organización básica del servicio, las funciones del personal y los órganos de coordinación se regirán por el Reglamento del Servicio del CAD, aprobado

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

Esparru Operatibo bat izango du; protokolo, prozedura eta tresna teknikoz osatua, eguneroko esku-hartzea, talde profesionalen arteko koordinazioa, gorabeheren kudeaketa, kasuen deribazioa eta jarraipena eta lankidetza-gobernantzako organoen funtzionamendua antolatzeko.

Barne Esparru Operatiboa udalek eta Emaús Gizarte Fundazioak batera landu, adostu eta eguneratuko dute eta, hala badagokio, zerbitzuaren garapenean parte hartzen duten bigarren mailako gizarte zerbitzue ere bai. Haren onarpena EAZen Batzorde Teknikoari dagokio, udalaren zuzendaritza eta gainbegiratze eskumenak kaltetu gabe.

Zerbitzuaren Erregelamendua nagusituko da adostasunik ez badago, eta Barne Esparru Operatiboa osagarria eta garatzailea izango da, eta nahitaezkoa izango da zerbitzua ematen inplikatutako langile guztientzat.

Seigarren klausula – Alderdien konpromisoak

Lezo, Pasaia eta Oiartzungo udalen konpromisoak:

- Emaús Gizarte Fundazioari zortzigarren klausulan ezarritako zenbatekoa ordaintzea, hitzarmenaren xede diren zerbitzu eta prestazioen finantzazioan laguntzeko.

- Emaús Gizarte Fundazioari jakinaraztea hitzarmenean eragin esanguratsua duten aldaketak, hitzarmena berritzea edo amaitzea ekar dezaketen egoerak. Gorabehera hori gauzatu baino gutxienez 3 hilabete lehenago jakinarazi beharko zaio.

- Programa garatzeko udal langileak jartzea.

Udal bakoitzak gizarte langile bat izendatuko du, zerbitzuko udal erreferente tekniko gisa arituko dena.

por los Ayuntamientos de Lezo, Oiartzun y Pasaia, que se integra como documento de referencia a los efectos del presente convenio.

Además del Reglamento, el servicio contará con un Marco Operativo Interno, integrado por protocolos, procedimientos y herramientas técnicas destinadas a ordenar la intervención diaria, la coordinación entre los equipos profesionales, la gestión de incidencias, la derivación y seguimiento de casos y el funcionamiento de los órganos de gobernanza colaborativa.

El citado Marco Operativo Interno será elaborado, acordado y actualizado de manera conjunta por los Ayuntamientos firmantes y por Emaús Fundación Social, con la participación, en su caso, de los servicios sociales de atención secundaria que colaboren en el desarrollo del servicio. Su aprobación corresponderá a la Comisión Técnica del CAD, sin perjuicio de las competencias municipales en materia de dirección y supervisión del servicio.

El Reglamento del Servicio prevalecerá en caso de discrepancia, y el Marco Operativo Interno tendrá carácter complementario y de desarrollo, siendo obligatorio para todo el personal implicado en la ejecución del servicio.

Cláusula Sexta – Compromisos de las partes

Compromisos por parte de los Ayuntamiento de Lezo, Pasaia y Oiartzun:

- Abonar a Emaús Fundación Social el importe establecido en la cláusula octava con el objeto de contribuir al sostenimiento de los servicios y prestaciones objeto del convenio.

- Comunicar de manera fehaciente a Emaús Fundación Social cualquier circunstancia que afecte de manera relevante al convenio suscrito y pudiera suponer su modificación, renovación o resolución, debiendo hacerlo con una antelación mínima de 3 meses respecto a la fecha en la que se haga efectiva la circunstancia de que se trate.

ESKU4ea30267-4671-4729-9865-709a45b4bcf6

Udal teknikariek, besteak beste, honako eginkizun hauek izango dituzte:

a) Erabiltzaileen sarbiderako preskripzio teknikoa.
b) Jarraipen soziala eta Emaús Gizarte Fundazioaren taldearekiko koordinazioa.
c) Zerbitzuaren talde eragilean parte hartzea.
d) Zentroaren Batzorde Teknikora joatea (Erregelamenduaren arabera).
e) Udal bakoitzeko teknikari batek astean behin gutxienez EAZen presentzia izatea, Emaúsen taldearekin esku hartzeko.

f) Txosten teknikoak egitea eta ebaluazio, bilera eta erakundeen arteko koordinazio-prozesuetan parte hartzea.

Emaús Gizarte Fundazioaren konpromisoak:

- Emaus Gizarte Fundazioak arreta-ereduari buruz ezartzen dituen aurrerapenak eta definizioak integratuko ditu zerbitzuak ematen duen arretan, eta zerbitzuko profesionalentzako prestakuntza-planak dagozkion eskumenak garatzeko prestakuntza jasoko du.

- Udal-teknikariei zuzendutako prestakuntza bultzatuko du screening tresnari dagokionez, eta, hala badagokio, tresna elkarrekin lantzeko dinamizazioa eta laguntza eskainiko ditu.

- Komunitateko lana eta esku-hartzea arreta ereduaren ardatzetako bat denez, hori ahalbidetuko duten ekintzak sustatuko ditu, eta, ahal den neurrian, hura garatzeko proiektuak erraztuko ditu.

- Eskualdeko sistemako maila guztietan aktibatutako zerbitzuekin lankidetza eta koordinazioa sustatuko ditu.

- Zerbitzua monitorizatzeko kontratatutako ikerketa taldearekin lankidetza sustatu eta erraztuko du.

-Jantoki zerbitzua eskainiko du astelehenetik ostiralera (gosaria eta bazkaria)

-Zerbitzuan artatutako pertsonei Emaús Gizarte Fundazioak sustatutako enplegurako

- Aportar para el desarrollo del programa personal municipal:

Cada ayuntamiento designará una trabajadora social, que actuará como referente técnico municipal en el servicio.

El personal técnico municipal asumirá entre otras las siguientes funciones:

a) Prescripción técnica de acceso de personas usuarias.
b) Seguimiento social y coordinación con el equipo de Emaús Fundación Social
